

ERABAKIA, 2015eko URTARRILAREN 16koa, EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEKO GERENTEARENA, HORREN BIDEZ, DONOSTIAKO ENPRESA IKASKETEN U.E.rako "ATEZAIN NAGUSIA" LANPOSTUA ALDI BATEZ ETA ZERBITZU EGINKIZUNETAN BETÉTZEKO DEIALDIA, 2014ko ABENDUAREN 5koa, EBATZI DA.

GERTAKARIAK

Lehenengoa.- Euskal Herriko Unibertsitateko gerentearen 2014ko abenduaren 5eko erabakiaren bidez deialdia argitaratu zen.

Bigarrena.- 2015eko urtarrilaren 7ko erabakiaren bidez, aipatutako deialdian onartutako lehiakideen behin betiko zerrenda argitaratu zen.

Hirugarrena.- Gerentzia honek deialdi honetan onartutako izangaiek adierazi eta egiaztatu dituzten merezimenduak baloratzeari ekin dio.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa.- Honako hauek dira aplikagarri:

- Azaroaren 26ko Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legea (urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatua).
- Euskal Herriko Unibertsitateko langileen lan-baldintzak arautzeko akordioa (1996ko urriaren 23ko erabakia, 1996ko azaroaren 12ko EHAAan argitaratua).
- Gobernu taldearen egitura eta funtzionamendu arloak zehazteko, eta eskumenak eskuordetzeko den 2013ko urtarrilaren 30eko erabakia, UPV/EHUko errektorearena (2013ko otsailaren 13ko EHAA).
- Euskal Herriko Unibertsitateko administrazio eta zerbitzuetako funtzionarioentzako zerbitzu betekizunak esleitzeko prozedura haztatua ezartzeko AZP Funtzionarioen Plangintza Batzordeak 2014ko uztailaren 1ean hartutako akordioa. Akordioa hau Gobernu Kontseiluak 2014ko uztailaren 10eko erabakiaren bidez berretsi zuen. (2014ko abuztuko 27ko EHAA).
- Deialdia egiteko UPV/EHUko gerentearen 2014ko ekainaren 23ko erabakia eta horrekin bat datorren gainerako araudi aplikagarri orokorra.

Bigarrena.- Gerentzia honek eskumena du erabaki hau emateko; izan ere, gobernu taldearen egitura eta funtzionamendu-arloak zehazteko eta eskumenen eskuordetzeko dena hartutako 2013ko urtarrilaren 30eko errektorearen erabakiaren bidez (2013ko otsailaren 13ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian), eskuordetu zaio horretarako eskumena.

Hirugarrena: Deialdiko lanpostua zerbitzu-betekizunen bidez hornitzeko prozedura Euskal Herriko Unibertsitateko administrazio eta zerbitzuetako pertsonala funtzionarioentzako zerbitzu betekizunak esleitzeko prozedura haztatua ezartzeko AZP Funtzionarioen Plangintza Batzordeak 2014ko uztailaren 1ean hartutako akordioa izango da. Akordioa hau Gobernu Kontseiluak 2014ko uztailaren 10eko erabakiaren bidez berretsi zuen. (2014ko abuztuko 27ko EHAA).

Laugarrena.- Aipatutako prozedurak ezartzen du hautatua izango dela merezimenduak baloratzeko zehaztutako baremazioaren arabera puntu gehien lortzen dituen izangaia eta, betiere, laugarren artikuluan adierazitako hurrenkerari jarraituko zaio hautaketa egiterakoan. Hautatutako pertsona adierazitako epean hasiko da zerbitzu betekizunen xede den lanpostuan edo eginkizunetan.

Horregatik guztiagatik, eman zaizkion eskumenak erabiliz, honako hau

ERABAKI DU:

Lehenengoa.- Donostiako Enpresa Ikasketen U.E.rako "Atezain Nagusia" lanpostua Zerbitzu eginkizunetan aldi baterako esleitzea, hautatutako funtzionarioari, erabaki honetako I. eranskinean jasota dauden baldintzetan.

Bigarrena.- Esleipena 2015eko urtarrilaren 21eko ondorio-datatz egitea. Esleipen hori indarrean egongo da 2014ko uztailaren 1eko erabakiaren 9. artikuluan adierazitakoaren arabera.

Hirugarrena.- Erabaki hau eta dagozkion eranskinak argitaratzea UPV/EHUren webgunean.

Laugarrena.- Erabaki hau jakinaraztea interesdunari, Donostiako Enpresen Ikasketen U.E.ko Administratzaileari, U.E Politeknikoako Administratzaileari, eta nominen atalari. Har beza kontuan AZPren atalak.

Bosgarrena.- Erabaki honek administrazio-bidea agortzen du eta honen kontra aukerako berraztertze errekurtsoa jar dakioge gerentzia honi, hilabeteko epean, edo, bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da administrazioarekiko auzietarako epaitegietan bi hilabeteko epean. Epe horiek erabakia lehen adierazitako moduan argitaratu eta eta hurrengo egunetik hasiko dira kontatzen.

Leioan, 2015eko urtarrilaren 16an.

Errektorearen eskumenak eskuordetuta: 2013ko urtarrilaren 30eko erabakia (2013ko otsailaren 13ko EHAA).

GERENTEA

Sinatua: Miren Lorea Bilbao Arteche



I. ERANSKINA

2015eko URTARRILAREN 16ko ERABAKIA, UPV/EHUko GERENTEARENA DONOSTIAKO ENPRESA IKASKETEN U.E.rako "ATEZAIN NAGUSIA" LANPOSTUA ZERBITZU EGINKIZUNEN ERREGIMENEAN EMATEA EBAZTEN DUENA (2014ko ABENDUAREN 5eko ERABAKIAREN BIDEZ IRAGARRITAKO DEIALDIA)

Esleipenduna: ELEZGARAY ANDONEGUI, MIREN EDURNE

Erref.: F423

Zenbatgarrena: 30

Taldea: E

Eskala edo kidegoa: Menpekoa

Hizkuntza eskakizuna: 2, derrigortasun-data: 2008/01/31

Lanaldia: goizez. jarraitua (sarrera 7,30)

Langunea: Enpresa Ikasketen U.E.

Campusa: Gipuzkoa

Ondorioetarako data: 2015eko urtarrilaren 21a



II. ERANSKINA

PUNTUAZIOEN ZERRENDA - ZERBITZU EGINKIZUNA - 14/12/15 DEIALDIA

GIPUZKOAKO EMPRESA IKASKETEN U.E.

ATEZAIN MAGUISA

Hor. 30 HE 2.08/01

ADJ	DNI	DEITURAK / Izen	ORD	PUNTE GUZT.	ANTZIN Punt.	EVANDAKO SERBITZUAK GUZT.	F = Talden Hill. Puntuak	L = Talden Hill. Puntuak	F & L = Tald Hill. Puntuak	EHLUZERR. Hill. Puntuak	F = Talden Hill. Puntuak	L = Talden Hill. Puntuak	F & L = Tald Hill. Puntuak	BESTE ADJ. Hill. Puntuak	GRADUA G	TITUL. Puntos	HIRK. Puntos	EUSKARA Pl. Pos.	EUKAR. Puntos									
ADJ	15893622R	ELEGARAY ANDONEGUI, MIREN EDURNE		30,2000	21	9,45	18,00	155	15,50	81	8,10		236	18,00		20	2,00	20	2,00	13	-3	0,5	2,25		2	0		
	441728932H	AGUIRRE ALBERDI, ARIITZ		28,9500	21	9,45	18,00	180	18,00	18	1,80		198	18,00		2	0,20	2	0,20	13	-3	0,5	1,00		3	0		
d) Behin behineko funtzionariak:																												
	158932325F	AGUIRREZABALA ZUBILLAGA, JOSUNE		13,0500	7	3,15	9,40	30	3,00				30	3,00	39	3,90	11	1,10	14	1,40	64	6,40				3	0	
	72474451W	ORELLA AZKONA, JON		2,6000	0	0	0,60	6	0,60				6	0,60												2	0	